

AURKIBIDEA

Abendualdiko kandelak pizteko lagungarria.....	4
Abenduaren 1ean, ABENDUALDIKO I. IGANDEA.....	7
Abenduaren 8an, MARIA BIRJINAREN SORTZE GARBIA	15
Abenduaren 15ean, ABENDUALDIKO III. IGANDEA.....	24
Abenduaren 22an, ABENDUALDIKO IV. IGANDEA.....	31

Kantua: «ABENDUAREN KANDELAK»

Doinua: Etxahun Iruri / Hitzak: Unai Manterola Albizu

0. A - ben - du - a - ren kan - de - lak

ar - gi e - gin - go di - gu, gi - za - di - a ez da - din

i - zan i - lu - na - ren ga - ti - bu.

Bi - zi be - rri - a er - ne - tzen do - a, frui -


tu E - gu - be - rri - du. En - bor za - ha - rra ger - ta -

tzen da bi - zi - a - ren tes - ti - gu.

The musical score is written in treble clef with a key signature of two sharps (F# and C#). The time signature starts as 2/4 and changes to 3/4 in the second line, then back to 2/4 in the third line, and finally to 3/4 and 2/4 in the fourth line. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables across notes.

1. Abenduko lehen argian / Itun Zaharra da giltza,
antzinatik iragartzen du / Salbamenaren Hitzak.
Profeta zaharren itxaropenez / barne-pozez gabiltza,
zori pozgarria dakigun / Erreinuko bizitza.

2. Argi honek indarra du / sugarraren oihartzun,
Bataiatzailea mintzo da: / “Datorrenari entzun”.
Salbatzailea gertatzen zaigu / promesaren erantzun,
bide prestatzea lokarri / ta bakea eraztun.
3. Hiru kandlek digute / barne-gogoa poztu,
Andre Mariak erraietan / Jesu Kristo du sortu.
Ahintza bezala, gozotasunez, / Jainkoa zaigu lotu,
gure barnean salbamena / badaiteke ehotu.
4. Laugarrengo su-argia / bizigarri ez al da?,
igo dugu dagoeneko / Abenduaren malda.
Maitasun eta itxaropenez / munduaren eztanda...
Dena berri gerta daiteke / garen oro emanda.



ABENDUKO KANDELAK PIZTEA

Aurreko orrialdean dator kantu bat, Abenduko kandelak piztean kanta daitekeena. 1. igandean, agurraren eta oharpenaren ondoren «0» bertsoa kanta daiteke, ondoren koroaren bedeinkapena egin, eta lehenengo kandela piztean «1» bertsoa. Beste igandeetan, igandeari dagokion bertsoa bakarrik.

Hona, lehenengo igandean bedeinkapena egiteko otoitza:

Astero, Abenduko kandelak piztean Eguberriaren argia jasotzeko prestatzen ari garela adieraziko dugu. Gaur, bedeinkapen otoitza egitera goaz aurreneko argia pizterako.

(Apaizak edota diakonoak besoak zabalik egiten dute otoitza; Hitzaren ospakizunean laikoak egin dezake otoitza, besoak zabaldu gabe).

Egin dezagun otoitz.

Jauna, egun hauetan lurra alaitzen da
eta Eliza pozez betetzen,
ilunpetan, ezjakinean, atsekabeen
eta bekatuan dauden gizakiengana baitator
argi amaigabea den zure Semea.

Jesus datorrela jakiteak sortu dion itxaropenez
koroa hau (enbor hau) prestatu du zure herriak
eta kandelaz apaindu.

Zure Semearen etorrerarako prestaera-garaia hastean
eskatzen dizugu, Jauna,
bere distira argi berriz areagotuz doan bezala,
gu ere argi gaitzazula munduaren argia den
eta ilunpe guztiak argitzen dituen Jesusen argiarekin
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

R/. A Amen.

Abenduaren 1ean
ABENDUALDIKO I. IGANDEA (C)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Liturgi urte berri bati hasiera ematen diogu gaur; urtean zehar Kristogandik datorkigun salbamenaren misterioa ospatuko dugu era askotara. Abendualdia, Eguberrialdia eta Epifania hartzen dituen aldia hasten dugu gaur: Espiritu Santuaren egitez Maria Birjinaren erraietan gizon egin eta jaio eta herri guztiei agertu zitzaien Jainkoaren Semearen oroipena egingo dugu.

Lau aste iraungo duen Abendualdia hasten dugu, Kristo Salbatzailea gizon egin zela eta berriz aintzaz etorriko dela itxaropenez eta pozez ospatzeko aldia.

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: Hitzaren eta Eukaristiaren mahaira gonbidatu gaituen Jaunak, aldi honetan bere etorreraren zain gaudela, gure bihotzak prestatu eta esna egoteko eskatzen digu. Bekatari garelara aitortuz, eska diezaiogun apalki errukia.

— Jesus Jauna, mundura gu salbatzera etorria: erruki, Jauna.

— Jesus Jauna, Espiritu Santuaren graziaz etengabe geurekin zaituguna: Kristo, erruki.

— Jesus Jauna, gure egintzak epaitzera egun batean etorriko zarena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. R/. A Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
 emaguzu zeure fededunoi Abendualdia hastean,
 gugana datorren Kristoren bidera
 egintza onez beterik ateratzeko gogoan,
 azken egunean bera aintzaz etortzean,
 haren eskuinaldean jarririk,
 zeruko erreinua irits dezagun.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟.* Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Animoso bizitzeko deia egiten digute irakurgaiek: burua altxata, bidean aurrera, duintasun gogoz eta solaridaritza egarriz. Hori da Jesusen jarraitzaileoi eskatzen zaigun jarrera: edonolako ustelkeria gure bizitzatik kanpo utzi eta Jaunari atsegin zaion bizimodua geure egin behar dugu.

Lehenengo irakurgaia (*Jr* 33, 14-16)

Jeremias Profetaren liburutik

Hau dio Jaunak: «Begira, badatoz nik Israelgo herriari eta Judako herriari emandako hitz onak beteko ditudan egunak.

Egun haietan eta garai hartan, legezko muskila sorraziko diot Davidi, eta zuzenbidea eta justizia ezarriko du lurrean.

Egun haietan Juda salbatuko da eta Jerusalem lasai biziko. Hona hiriari emango dioten izena: “Jauna gure zuzentasun”..

Erantzun-salmoa (*Sal* 25 [24], 4-5b. 8-9. 10 eta 14)

Ar - gi - tu gu - ri zu - zen - ta - su - na. E -
 man be - ti - ko ba - ke - a, Jau - na.



- √. Azaldu niri, Jauna, zeure bideak,
 erakutsi zeure bidexkak.
 Gida nazazu zeure leialtasunean, eta irakatsi,
 Zu baitzara nire Jainko salbatzailea. R̄.
- √. Ona eta zuzena da Jauna,
 bidea erakusten die bekatarriei.
 Apalak zuzenbidez darramatza,
 bere bidea erakusten die apalei. R̄.
- √. Jaunaren bide guztiak maitasun eta leialtasun
 haren ituna eta aginduak gordetzen dituztenentzat.
 Bere barrua azaltzen die Jaunak begirune diotenei,
 bere ituna ezagutarazten die. R̄.

Bigarren irakurgaia (Ts 3, 12–4, 2)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Egin dezala Jaunak gero eta handiago zuek elkarrentzat eta denentzat duzuen maitasuna, handia den bezala guk zuentzat dugun maitasuna. Horrela, sendo dezala zuen bihotza, Jesus gure Jauna bere santuekin etortzean, santu eta esankizunik gabe aurkez zaitezten gure Aita Jainkoaren aurrean.

Gainerakoan, senideok, eskari hau egiten dizuet, arren eta arren, Jesus Jaunaren izenean: Jainkoari atsegin emateko nola bizi gugandik ikasi zenutenez, saia zaitezte gero eta gehiago horrela bizitzen. Badakizue nolako irakaspenak eman genizkizuen Jesus Jaunaren izenean.

Aleluia (*Sa/85 [84], 8*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Erakutsi guri, Jauna, zeure **ma**itasuna,
eman zeure **sal**bamena. ∇.

Ebanjelioa (*Lk 21, 25-28. 34-36*)**Homiliarako argibideak****0.- HASIERA BERRI BAT**

- Urtero bezala hasiera ematen diogu Urte Liturgikoari Abendualdiarekin eta, honekin batera, gure Salbamenaren Historiari tokia egiten diogu gure kristau elkarte eta gure bihotzetan. Jaunari tokia egin behar zaio!
- Egia esan, bi Pazkoak erdibitzen dute gure liturgia osoa: lau aste barru ospatuko dugun Eguberria eta Garizumako denboraren ondoren, Jesusen Pazkoa, Jaunaren Heriotzaren eta Piztueraren misterio handia.
- Eta Gabon garaian Jauna guregana etorri zela ospatzeko aurre prestaketa bat eskaintzen zaigu patxadaz eta sakontasunez misterio hau barneratzeko.
- Urtero hasten dugu denbora berri hau, urtero eskaintzen zaigu sakontasunez Jaunaren misterioa gureganatzeko.

1.- ERNE EGON

- Eta gaurko liturgiak ezaugarri eta azpimarra bezala adi egon eta adi bizitzeko proposamena egiten digu Jaunaren etorrera prestatzeko.
- “Guzti hori gertatzen denean” -ohartarazten digu gaurko ebanjelioan Lukasek- tente egoteko eskaria egiten zaigu. Tente, zutik, ez buru makur.

- Vatikanoko II.ak eskaintzen digu denboraren zeinuak irakurtzeko premia, gure inguruan zer gertatzen den ikusi eta Jaunaren eta senideen aurrean jartzeko. Bereziki, historiaren ibilbide aldrebes eta malkartsu honetan, Jaunaren urratsak ikus ditzagun.
- Hor, gurekin batera, Jauna dabil ibiltari, gurekin erromes, gurekin bidaide. Hori bai, bera aurretik eta gu bere atzean Eliza eginez, elkarte sentituz.
- Erne eta adi egoteko deia dugu gure aurrean. Kristau elkarteok ez dugu etsi behar egiten dugun bidea ez dela bakartia. Gurekin batera, munduan zehar, zintzo eta leial jokatzan duten kristauak dabiltzala, ez gaudela bakarrik.
- Horrexegatik, ahulagoak eta hauskorragoak garela jabetzean, gure pobretasuna onartzea besterik ez zaigu geratzen. Eta onarpen apal honetan Jesusek emandako oharra: ez dadila gure gogoia moteldu, ez dadila gure sua itzali, Jaunaren sua amaitu.

2.- “BADATTOZ EGUNAK”

- Jaunak Jeremias profetari egindako promesa gaur ere beteko da. Profetari egindako promesak sei mende itxaron behar izan zuen. Bi mila urte daramagu egun horiek biziz eta ospatuz. Horixe da Abendualdiko muina: beteko den promesa, betetzen ari den agintza.
- Promesa hori gure historiaren enborrean sartu da betirako eta gizateriaren historia Salbamen historia bihurtu da, salbatuak izango garelako, salbatuak garelako.
- Kristauon misioa salbamen hori lau haizetara zabaltzea da, etsipenaren tentazioa alde batera utziz eta Jesusek bakarrik ekar dezakeen esperantza hots eginez.
- “Etorriko dira egunak, etorriko dira egun hobeak” – diogu zenbaitetan, “esperantzara kondenatuak” egongo bagina bezala (zioen abeslariak). Baina, esperantza da gure salbamenaren giltza, etorri eta emango zaigunaren aurre oparia.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna,
zure esku zabaletik hartuta dakarzkizugun dohainak;
egizu, ogi-ardo hauekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dugun Eukaristia
zure erospenaren betiereko sari gerta dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 1. (*Meza-liburua: 466. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

On egin diezagula, Jauna,
orain ospatu dugun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza iheskorren artean erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maita ditzagula
eta horietan jar dezagula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *R̄*. Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Jesu Kristo etorri dela sinesten duzue

eta berriro aintzaz etorriko dela itxaroten:

Jainko ahalguztidun errukitsuak,

haren etorreraren argiaz,

santu egin zaitzatela eta bere bedeinkapenaz bete. *R̄*. Amen.

Bizitza honetan gorde zaitzatela Jainkoak
fedean sendo,
itxaropenean alai
eta maitasunean eginkor. \mathcal{R} . Amen.

Orain gure Salbatzaile gizon eginaren etorreraz
pozten zaretenoi,
gero, berriro aintzaz etorriko denean,
eman diezazuela betiereko biziaren saria. \mathcal{R} . Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. \mathcal{R} . Amen.
Zoazte Jaunaren bakean. \mathcal{R} . Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 8an
MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA

*Bilbao, Vitoria-Gasteiz eta Donostiako Elizbarrutietan
Seminarioaren eguna*

Agurra

Mariaren errailetan gizon egin zen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Abendua Andre Mariaren hila da. Bera da itxaroten dakiena, bera da “Itun Berriaren Kutxa” Jaunak garbi eta eder prestatua. Berari begira ikasten dugu Eguzki berria onartzeko bidea egiten.

Gaur gainera Seminarioaren eguna dugu. Bereziki bokazioen alde eskatzeko egun bikaina.

Ospa dezagun pozik Amaren jaia. Jainkoa goretsiz eta eskerrak emanaz. Horrek lagunduko digu Eguberria prestatzen.

Damu-otoitza

Senideok: Ospakizunaren hasieran gogora dezagun, Jainkoaren erruki eta salbamenaren beharrea aurkitzen garela. Eta Maria Birjina bekatutik garbi egin zuen Jainkoari, eska diezaiogun barka ditzala gure bekatuak.

—Jesus Jauna, zeure herria salbatzeko Maria Birjinagan **gizon** egin zinena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gizadiaren itxaropen guztiak betetzera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure Ama bekatutik garbi eta graziaz betea **egin** zenuena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟̄.** Amen.

Aintza zeruetan

Andre Mariarekin eta santuekin bat eginik eta Eliza osoarekin batera gorets dezagun Jainkoa Aintza zeruetan [esanez] kantatuz.

Otoitza

Oi Jainko,
egoitza egokia prestatu zenion zeure Semeari
Maria Birjinaren Sortze Garbiaz
eta, honen Semearen heriotza aurreikusirik,
garbi gorde zenuen bekatu guztitik Ama;
egizu, Maria Birjinaren otoitzari esker,
gu ere Zugana garbi irits gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟̄*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Testigu alaiak izateko deia egiten zaigu. Erantzun dezagula Mariak bezala: «Hona hemen ni, Jauna, gerta bedi nigan zure nahia».

Lehenengo irakurgaia (*Has 3, 9-15. 20*)

Hasiera liburutik

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

Erantzun-salmoa (*Sa/98 [97]*, 1. 2-3b. 3c-4)

Kan -ta Jau -na - ri kan - tu be - rri, e - gin bait di -
tu hain - bat ha - rri - ga - rri.

- ∞. Kanta Jaunari kantu **berria**,
egintza harrigarriak egin **baititu**;
garaipena eman dio bere **eskuin**ak,
bere beso **santu**ak. ℞.
- ∞. Bere garaipena ezagutarazi **du** Jaunak,
bere salbamen-egintza agertu nazioen **aur**rean.
Ez da ahaztu bere maitasunaz,
Israel herriari dion leialtasunaz. ℞.
- ∞. Munduko bazter guztiek ikusi dute
gure Jainkoaren garaipena.
Egin irrintzi Jaunari, lur **oso**a,
egin poz-oihu eta kantu, jo **soinu**a. ℞.

Bigarren irakurgaia (*F/p* 1, 4-6. 8-11)

San Paulo Apostoluak Filipinoarrei egindako gutunetik

Senideok: Pozik egiten diot beti otoitz Jainkoari zuen guztion alde, lankide izan baitzaituztet Ebanjelioa zabaltzeko eginkizunean, lehenengo egunetik orain arte. Ziur nago eginbide on hau zuengan hasi duenak burutu ere burutuko duela Kristo Jesus etorriko den eguna arte.

Testigu dut Jainkoa, zein maite zaituztedan guztiok Kristo Jesusen maitasun bihotzekoaz. Eta hau da nire otoitza: zuen maitasuna zabalduz joan dadila jakintzan eta sentiberatasunean gero eta biziago, egokien dena bereizten jakin dezazuen. Horrela, garbi eta esankizunik gabe iritsiko zarete Kristo etorriko den egunera, Kristo Jesusen bitartez dugun zuzentasunaren emaitzez beterik, Jainkoaren aintza eta gorespenerako.

Aleluia (Ik. *Lk* 1, 28. 42)

- ℣. Poztu zaitetz, Maria, graziaz **bete** hori!
 Jauna zurekin,
 bedeinkatua zu emakume**en** artean. ℟.

Ebanjelioa (*Lk* 1, 26-38)

Homiliarako argibideak

0.- NONDIK DATOR GAIZKIA?

- Ziurrenik zenbaitetan egin dizute hurrengo galdera: nola baimentzen du Jainkoak hau gertatzea? Ahalguztiduna bada, zergatik ez ditu oinarritik munduko gerrak eta gaitzak geldiarazten?
- Fededun izan ala ez, guregana etortzen zaizkigun galderak dira hauek, Jaunarenganabegira jartzen gaituzten galdera dira. Zenbaiten aurrerapenen ordain saria dela diote, beste batzuk gizateriaren heldutasun falta.
- Elizak fede oinarri hartuta erantzun bat eskaintzen du. Hauxe da: Jainkoak gizakiarekiko zuen lehen asmoa hauxe zen: bere buruarekin bakean egon, ingurukoekin lasai bizi eta Jaunak gure eskuetan utzitako kreazioarekin armonian bizi.
- Baina, hementxe koxka, estropozua: Jaungoiko Jaunak Genesi liburuko entzun dugun lehenengo irakurgaiaren lehen gizakiari bere asmoa agertzen dio eta galdera borobila bota: “*Non zara?*”. Beste modu batean esanda: “zertan ibili zara nik eskainitako konfiantza hausteko?”
- Eta hemen gizakion haustura, jatorrizko bekatua, gure askatasunaren ariketa: “*Zer egin duzu?*” Jaunak berriro egindako galdera zorrotza.

1.- SORTZEZ GARBIA

- Eta norbaitek pentsa bazezakeen Jaunaren asmoak, Jaungoikoaren ametsak porrot egin zuela eta ez zuela inongo erremediorik, Jainko berak gizakia “bersortu” egiten du, berriro hasi, itun berriaren atea ireki.
- Egia esan, Jaun Onak, zeruak eta lurak egin zituenak ezin du beste modu batera jokatu. Sorreraren arrazoia maitasuna da, seme galdua etxean onartzearen arrazoia errukia eta maitasuna da, Elizak Jaunaren maitasunari esker irauten du.

- Nazareteko neskatxarekin sorrera berritzen du Jaunak, asmo berri baterako baimena eskatu eta Mariak baietz esaten du. Baietza borobila da, ezbairik gabekoa, ausarta eta ondorengo gizatiarentzat erabatekoa.
- Mariari esker Itun Berriaren ateak parez-pare irekitzen dira eta, Nazareteko neskatxari esker, Nazareteko Jesus dator mundura.
- Ez da batere erraza ulertzeko, baina bihotza eta etorkizuna Jaunaren eskuetan jarriz gero, zalantzak lausotzen dira: “gerta bekik zuk diozun bezala” -esango du Mariak.

2.- POZTU GAITEZEN AMAREKIN

- Mariarekin batera fededunon bidea egiten dugu zerurako erromes: *“Erromesenarreba bideko Andre Mari”*.
- Gaur apaiz bokazioen aldeko otoitza eta eskaera egiten dugu gure Elizbarrutietan ditugun apaizgaien alde eskatzeko eta, gure eskasian, *“uzta-jabeari erregutu dezagun, bidal ditzala langileak bere uztara”* (Lk 10, 2c).
- Mariak partehartu zuen bezala guri ere laguntza eskatzen zaigu, gauza handi nahiz txikienetan gure bihotza jar dezagun.
- Bataioko uretatik birsortuak izan gara eta Mariak betirako atea ireki du guk gaur bertantxe Jesu Kristoren mahai inguruan jar gaitezen eta ogi beretik jan. Esan diezaiogun ozen Mariari: *“gure fede bidean zu zeu ibiltari, emaitza bihotza gure bideari, zure aintza dezagun helmugako sari”*.

Jainkoaren herriaren otoitza

Andre Mariarengan gizakien salbamena hasi zuen Jainkoari, eska diezaiogun Jaunaren bidera ateratzeko indarra eta laguntza:

Erantzuna: R/. Zatoz, Jauna, gu salbatzera!



- Salbamenaren betea Mariarengan aurreikusi zuen Jaunak, lagun diezagula Elizako kide guztioi Kristoren Amaren edertasuna islatzen. Egigun otoi^z. R̃.
- Andre Mariarengan Salbatzailea ernearazi zuen Espiritu Santuak berak mundua bete dezan eta gizaki guztiengan Jainkoaren Erreinuarekiko gogo beroa sorrarazi dezan. Egigun otoi^z. R̃.
- Gure apaizgaiek jaso dezaten kristau-elkarteen harrera eta beroa eta Andre Mariaren antzera Jainkoaren aurrean lanerako prest agertuko diren apaiz bokaziodunak gure artean falta ez daitezten. Egigun otoi^z. R̃.
- Andre Mariari begira, berak bezala Kristo onartzeko prestatu gaitezten eta Haren jaiotzako jaiak bihotzez ospa ditzagun. Egigun otoi^z. R̃.

Jainko ahalguztiduna eta errukitsua, lur honetako gauzen ardura ez dezagula eragozpen izan zure Semeari bidera gogotsu irteteko; eta eraman gaitzazu, jainkozko jakinduriaren irakaspenez, zeure Semearekin bat egitera. Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. R̃. Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena (Diru-bilketa egiterakoan)

Gaurko diru-bilketa gure Seminarioari laguntzeko izango da, baita bokazio pastoraltzak harrera ona egiten jarrai dezan ere.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna, Maria Birjina dohatsuaren
Sortze Garbiaren festaburua ospatzean
eskaintzen dizugun opari salbagarria;
eta hura, aurretiaz hartutako zure graziari esker,
erru guztitik libre izan zela aitortzen dugun bezala,
libra gaitzazu gu ere, haren otoitzaren laguntzaz,
bekatu guztietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Prefazioa: Sortzez Garbiarena (*Meza-liburua: 917. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko gure Jauna, Maria Birjinaren sortzea
jatorrizko bekatutik garbi gorde zenuen miragarriro;
hartu dugun sakramentu honek senda ditzala guran
bekatu horren zauriak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *R̄*. Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Maria Birjina dohatsugandik jaiotakoaren bitartez
gizadia bihotz onez salbatu duen Jainkoak
eman diezazuela oparo bere bedeinkapena. *R̄*. Amen.

Bizi-iturria eman dizuen Mariaren laguntza
izan dezazuela nonahi eta beti. *R̄*. Amen.

Eta Mariaren jaia santuki ospatzera etorri zaretenoi
eman diezazuela Jainkoak
Espirituaren poza eta zeruko sariaren dohaina. ✠. Amen.
Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. ✠. Amen.
Zoazte Jaunaren bakean. ✠. Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 15ean
ABENDUALDIKO III. IGANDEA (C)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Jauna hurbil izateak sortzen duen poza da Abendualdiko hirugarren igande honetako ezaugarri nagusia. Poz horrek ezin du izan kanpoko itxura bakarrik Kristok dakarren salbamenak barru-barruraino sortzen digun jarrera berria baizik. [Pizten dugun hirugarren kandelak irudika dezala Jaunak bere etorrerarekin gure bizitzan sortzen duen argitasuna.]

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: Jaunaren etorreraren gertutasuna haren errukia gozatzeko aukera da. Eska diezaiogun apaltasunez gure bekatuen barkamena.

— Jesus Jauna, zure herriari bakea ekartzera **etorri** zinena: erruki, Jauna.

— Jesus Jauna, galdurik zegoena salbatzera **etorri** zinena: Kristo, erruki.

— Jesus Jauna, mundua berri egitera **etorri** zinena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. *R*. Amen.

Otoitza

Oi Jainko, ikusten duzu zeure herria,
 Jaunaren jaiotzako jaia zintzo itxaroten;
 egizu, arren,
 irits gaitezela salbamen miragarriaren zorionera
 eta gorapen eta pozik handienaz ospa dezagula.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R.* Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Nola entzuten diot Jaunari? Nola uzten diot mintza dakidan? Ez ote ditugu bideak itxi, agortu? Guk ezagutzen ez ditugun bide eta neurrietan agertuko zaigun Jaunari harrera egin ahal izateko ezinbestekoa dugu begirada zabaltzea eta erne bizitzea.

Lehenengo irakurgaia (*So* 3, 14-18a)

Sofoniasen Profezia liburutik

Egin poz-irrintzi, Sion hiri! Egin oihu alai, Israel! Poztu zaitez bihotz-bihotzez, alaitu, Jerusalem! Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak. Jauna Israelgo erregea zure erdian dago; ez zara gehiago ezeren beldur izango.

Egun hartan, honela esango diote Jerusalemi: «Ez beldur izan, Sion! Ez bitez erori zure eskuak! Jauna zure Jainkoa zure erdian dago salbatzaile indartsu! Pozaren pozez alaitzen da zugatik, bere maitasunez biziberritzen zaitu. Pozez jauzika dabil zugatik, jaiegunez bezala».

Erantzun-salmoa (*Is* 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6)

Jau - nak he - rri - a dau - ka be - re - kin, be -
 dein - ka - tzen du ba - ke - a - re - kin.



- √. Jainkoa dut sal**ba**tzaile!
 Badut uste on eta ez **naiz** beldur,
 Jauna baitut indar **eta** kemen,
 hura neure **sal**bamen. Ṙ.
- √. Aterako duzue ura pozik ‘
 salbamenaren iturrietatik.
 «Eskerrak Jaunari, dei egin haren **izen**ari,
 iragarri haren egintzak **herriei**,
 aldarrikatu zein bikaina den haren **izen**a. Ṙ.
- √.. Kanta Jaunari, bikain jokatu baitu,
 jakin bezate honen berri mundu **oso**an.
 Egin poz-irrintzi eta oihu, Siongo bizilagunok,
 handikiro ari baita zuen alde Israelgo **Santua**». Ṙ.

Bigarren irakurgaia (Flp 4, 4-7, 16-24)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei

Senideok: Zaudete beti pozik Jaunagan; berriro diotsuet, zaudete pozik. Ezaguna izan bedi gizaki guztientzat zuen bihotz ona. Hurbil da Jauna. Ez izan ezeren kezkarik, baizik eta gorabehera guztietan agertu zeuen eskabideak Jainkoari, otoitz eta erregu eginez eta eskerrak emanez. Eta guk pentsa dezakeguna baino handiagoa den Jainkoaren bakeak gordeko ditu zuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen bidez.

Aleluia (Is 61, 1 [ik. Lk 4, 18an aipatua])





∞. Jaunaren Espiritua nire gainean dago,
behartsuei Berri Ona ematera bidali nau. ∞.

Ebanjelioa (*Lk 3, 10-18*)

Homiliarako argibideak

0.- GALDEZKA

- Gaurko ebanjelioko jendearen antzera Joan Bataiatzaileari galdezka gaude. Zerbait berria datorrela sumatu ondoren, Berri Onaren esperantzari irekiak gaudenean galdezka hasten gara. Ez dago esperantzarik galdezka jarri gabe.

- Abendualdiko bidean aurrera goaz. Gaur, hirugarren urratsa eta Bataiatzaileari zer egin behar duten eskatuz datozkio jendea, zergalariak edota soldaduak. Ofizio bakoitzak bere galdera eta egokitutako erantzuna du: zuzen jokatu eta datorrenari bidea prestatu.

- Datorrenari bidea irekitzeko eguneroko justiziarik bidea egin behar zaio, halaber, maila kulturalen, maila ekonomikoan eta maila sozialean. Gizartearen zerbitzura daudenak ere beren eginkizuna dute justiziaren alde.

- Jaunaren etorrerak bere garaian eta gaur sortu dezakeen kezka piztu behar zaigu gure artean behar bezala erantzuteko prest ote gauden jakiteko.

1.- BADATOR

- “Badator Espiritu Santuaz eta suaz bataiatuko zaituztena”. Joan Bataiatzaileak urez bataiatzen zuen eta ondo asko ireki zuen bere ingurukoen arteko esperantza, zetorrenari bidea irekiz.

- Guk Espiritu horixe bera eskatzen dugu geure itzaletatik irten eta Jesusek eskaintzen duen argia jasotzeko.

- Badator, badator. Etengabe ari gara aste hauetan esaten, iragartzen. Bidai bat aurrez prestatzen aritzeak ematen duen poza bidai bera egitea bezain ederra edota, zenbaitetan, handiagoa izaten da!

- Gure Abendualdiko bidaian prestaketak sortzen duen ariketa espiritualak gure justizia, gure esperantza neurtzen ditu. Baina, Jainko sortzaile eta salbatzailearen agerkundeak gainezka egiten duen poza eragiten dio gizakiari.

- Etorri zen, datorren eta etorriko denaren poza sakon bizitzeko prest egon behar dugu.

2.- POZA

- Sofonias profetak iragartzen duen poz-irrintziarekin bat egin dezagun guk Jaunaren etorrera sakontzen eta sentitzen ari garela.

- Elizan edota gizartean zenbaitetan senti dezakegun zama edo zailtasunek ez dezatela lausotu Jesus Jaunak ekarriko digun Berri Ona. Poz honek hainbat atal ditu geure bizitzan: lehenik, norberak bereganatu eta sakondu behar du barnean eragiten dion poza. Jauna guregana dator, baina, inor kanpoan utzi gabe, nirekin hasiko da.

- Poz honek elkartean eragina izan behar du eta ahalegin berezi bat egin behar genuke gure fedea bizitzeko eta ospatzeko era baikorrear.

- Azkenik, eukaristia amaitzean, misiolari egiten gara jaso duguna baikor, sakon eta pozez partekatzeko. Denok gaude bidaliak, denok gara misiolari Jesusek ekarriko digun poz hori gure ingurukoei zabaltzeko. Hortxe erronka galanta!

Jainkoaren herriaren otoitza

Jauna badatorrela jakiteak poztuta, egin dezagun otoitz senideok, gure askatasuna uste onez itxaro dugula

Erantzuna: ✠. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



—Mundu honetako indarrekin liluratu gabe, Eliza bizi dadila beti Jainkoaren gidaritzapean. Egigun otoitz. ✠.

—Jainkoaren laguntzaz eta denon ahaleginez, gure garaiak bakezko eta zorionezko egun izan daitezen. Egigun otoitz. ✠.

—Jaunaren etorrerak denon bihotzak mugi ditzan, gaixoen osasuna, bakarrik daudenen laguntasuna eta sufritzen duten guztien atsedena bila ditzagun. Egigun otoitz. ✠.

—Orain Jaunaren lehen etorrera eta gizon egitea zintzo ospatzen dugunok, azken egunean datorrenean ere pozik onar dezagun. Egigun otoitz. ✠.

Entzun gure otoitzak, Jainko ahalguztidun horrek eta berri gaitzazu Zure Espiritu Santuaren suaz; egizu, Zure aginduei jarraituz gizaki guztiei hots egin diezaiegula Zure Semearen etorreraren berri pozgarria. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Atsegin bekizu, Jauna,
gure buruaren eskaintza adierazten duen opari hau,
eta bete ezazu gugan, sakramentu honen bidez,
zeure salbamena.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 1. (*Meza-liburua: 466. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Jauna, zure errukiari deika gaude:
hartu dugun sakramentu honek
senda gaitzala gure jokaera txarretatik,
eta datozkigun Eguberri-jaietarako prestatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia (*Liburuxka honetan: 13. or.*)

Abenduaren 22an
ABENDUALDIKO IV. IGANDEA (C)

Caritasen jardunaldi berezia

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Gaur, gure Salbatzailearen jaiotza-jaia gertu dugula, otoitz bihurtzen da gure itxaropena eta Isaias profetaren hitzekin esan dezakegu: «Isuri goitik, zeruok, ihintza bezala, isuri, hodeiok, garaipena euria bezala! Ireki bedi lurra eta eman beza Salbatzailea!» [Mariak eta Josek itxaron zuten bezala itxaron behar dugula oroitarazten digu Eguberriak: gogo horrekin pizten dugu Abendualdiko laugarren argia].

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: itxaropen aldian aurrera goaz. Mariaren antzera Jaunaren etorrerarako prest egon nahi dugu. Aitor ditzagun apalki gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

- Jesus Jauna, ilunpetan bizi direnei argi egitera zatozen **munduko** argia: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zeure artaldea egiaren eta zuzentasunaren bidetik eramatera **zatozen** Artzain Ona: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, aitaren agintzariak bernen betera eramateko, egun batean itzuliko zaren Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Isur ezazu, Jauna, gure bihotzetan zeure grazia,
 eta egizu, aingeruak esanik
 zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok,
 haren nekaldiaren eta gurutzearen bidez,
 irits gaitezela piztueraren ospera.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Itxaroten duenarengan salbamena ertzen dela Mariarengan ikusten dugun garbien. Gure ahaleginen gaintetik dago Jaunaren dohain neurrigabearen indarra.

Lehenengo irakurgaia (Mi 5, 1-4a)

Mikeasen Profezia liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Zu, Efratako Betleem, Judako leinuetan txikiena, zugandik aterako da Israelen buruzagia. Aspaldikoa da honen sortzea, betiereko egunetakoa. Horregatik, utzi egingo du Jaunak herria, amak haurra izan dezan arte. Orduan, atzerrian bizirik gelditutako senideak Israelgoengana itzuliko dira. Sendo eutsiko dio eta artzain bizkorra izango da Jaunaren indarrez, Jaunaren bere Jainkoaren izen handiaz.

Lasai biziko dira herritarrak; handi agertuko baita hura lurraren mugetaraino, eta bakea ekarriko du».

Erantzun-salmoa (Sal 80 [79], 2acd eta 3bc. 15-16. 18-19)

Gu - re ar - te - ra be - tor, Jau - na, zu - re be - ti -
 ko bi - hotz o - na.



- √. Entzun, Israelen artzain,
 hegodun izakien arteko tronuan zauden hori,
 ager zakizkigu dirdaitsu.
 Suspertu zeure ahalmena ‘
 eta zatozkigu salbatzera. R̃.
- √. Jainko ahalguztiduna, itzuli, arren,
 begira zerutik, ikusi!
 Hartzazu zeure mahatsondoaren ardura,
 zaindu zeure eskuz landatu duzuna. R̃.
- √. Emaiozu eskua zeure aukeratuari,
 zeure indarrez jantzi duzun gizasemeari.
 Ez gara Zugandik inoiz aldenduko;
 Zuk bizia emango diguzu ‘
 eta guk dei egingo diogu zure izenari. R̃.

Bigarren irakurgaia (*Heb* 10, 5-10)

Hebrearrei egindako gutunetik

Senideok: Kristok, munduan sartzean, dio: «Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan; baina gorputza eratu zenidan. Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik ez zenuen atsegin izan. Orduan, esan nuen: Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko; hau dago Liburuan Nitaz idatzia».

Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko».

Lehenengo kultua kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

Aleluia (*Lk 1, 38*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Hona hemen Jaunaren mirabea;
gerta bekit zuk diozun bezala. √.

Ebanjelioa (*Lk 1, 39-45*)**Homiliarako argibideak****0.- MARIAREN ESKUTIK**

- Mariaren eskutik iritsi gara Eguberriaren atarira. Mariak bizi-bizi Isabelengana egin zuen bisitaldiak gu ere martxan jartzen gaitu.
- Orain lau haste hasitako bidearen helmuga ikusten dugu eta Judeako herri horretatik Belengo estalpera salto egingo dugu hiru egun barru.
- Mariari esker egin dugu bide hau. Berarekin batera geu ere baiezko borobila ematera gonbidatzen digu Jaunak gaur bertantxe.
- Mariak eman zuen baietza guregana dator. Mariak Salbatzailearen atea ireki zituen moduan guri ere gonbidapen bera egiten zaigu.
- Egia da, Belen Judako herrixka txiki bat besterik ez zela, handik Salbatzailea etortzeko. Baina, nor gara gu ere, gure txikitasunean, Jauna gaur ere guregana etortzeko?
- Salbamina ez dator gure merezimenduei esker, ezta gure ahaleginen bidetik. Jaunak doan eskaintzen digu salbamina, eskuzabal datorkigu gaur ere.

1.- ATARIAN GAUDE

- Ustekabeen Eguberrien atarira iritsi gara eta oraindik zenbait gauza prestatzen ez ote ditugu izango? Buruhauste asko familia afari edota bazkariak prestatzeko. Datozen senitartekoei etxean tokia egiteko zenbaitetan aulki eske joan gara bizilagunei.

- Isabelek Mariari egindako galdera bera datorkigu geuregana: “Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko?” Isabelen ustekabea handia izan bazen, zer ez ote da izango gurea Jauna bera guregana datorrela jabetzen garenean, misterio handi hori ospatzen dugunean?

- Egun gutxi falta dira eta oraindik azken erosketak egiteko denbora badugu, ez ote gara gai izango misterio handiena sakontzeko tartetxoren bat bakarka hartze ez badugu?

2.- ZORIONEKOAK GARA

- Isabelen sabelean haurrak jauzi egin zuen bezala guk ere jauzi txiki bat egin behar genuke datorrena behar bezala ospatzeko.

- Bai handia Jainko Ahaltzuak egingo digun oparia. Aurtengoan ere!

- Horregatik gara zorionekoak, misterio santua sinesten dugulako eta ahalegin horretan fedearen barne poza sentitzen dugulako. Gauza handietan edota txikietan ere. Eta haxe da gure misterioaren sinesmena: Jaun Handia haurtxo txikia egingo zaigulaeta, begi-bistako hauskortasun horretan Jainko Onak gurekiko duen ezberrik gabeko maitasuna adieraziko digula.

- Edonola gaudela, gure ahulerian, gure gaixoaldi, nahiz osasunean... zorionekoak gara Jaunak esandakoa beteko duelako!

Jainkoaren herriaren otoi-tza

Eska dezagun, senideok, Jaunaren laguntza, bere errukiz mundura etor dadin eta salbamena ekar diezagun:

Erantzuna: ✠. Zatoz, Jauna, gu salbatzera!



- Fededun guztiak prest egon daitezen Mariak bezala Kristo onartzeko eta hark bezala Bere hitzak bihotzean gordetzeko. Egigun otoitz. ✠.
- Fedetik urrundu arren Eguberriak ospatzen dituzten gure senideek aurki dezatela Ebanjelioko berri ona, ez ilunpetako argi-izpi bezala bizitza osoa argitzen eta alaitzen duen argi iraunkor eta eder bezala baizik. Egigun otoitz. ✠.
- Jaunaren Jaiotza ospatzea gerta dadila zalantzan daudenentzat argi eta barne-minez bizi direnentzat babes eta laguntza. Egigun otoitz. ✠.
- Caritasek gaur gogoratzen dizkigun behar guztiak aintzat har ditzagula, gure eguneroko bizitza, eta bereziki Eguberritako festak neurritsu antolatzerakoan. Egigun otoitz. ✠.

Jainko gure Jauna, Maria, Israelgo alaba apala, aukeratu zenuen gure artean betiko geratzeko bide; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure nahia onartuz bizitzea, promesa guztiak betetzera mundura etorri zen Zure Semea bezala esaneko izanez. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Gogoratu gaurko diru-bilketa gure parrokiako Caritasen beharretarako izango dela. Izan gaitezen eskuzabalak.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, Maria dohatsuaren sabel garbia
bere indarrez santu egin zuen Espirituak sagara ditzala
zure aldarera ekarri ditugun eskaintzak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 4. (*Meza-liburua: 471. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna,
betiko biziaren agiria harturik, hau eskatzen dizugu:
zenbat eta hurbilago izan salbameneko jaia,
presta gaitzela hainbat eta gartsuago
zure Semearen jaioteguna fede-jarreraz ospatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. \mathcal{R} . Amen.

Bedeinkapen Nagusia (*Liburuxka honetan: 13. or.*)